

Iruñeko zitadela elur gudu batean galdu zen

IRUÑEA, 1808KO OTSAILAREN 8A. D'Armagnac jenerala buru zuen frantses soldadu taldea hirira iritsi zen. Erronkariko bailara eguraldi kaxkarrarekin eta baldintza gogorretan zeharkatu ondoren, 2.000 soldaduek Nafarroako hiriburuan hartuko zuten atseden, aurreago Portugalera bideari berriro heltzeko.

Hilabete batzuk lehenago, 1807ko urriaren 27an, Espainiako Karlos IV.a erregearen balido Manuel Godoyk eta Napoleon Bonapartek Fontainebleau-

ko Ituna sinatu zuten. Itunaren arabera, bi potentziek Portugal batera inbaditzea erabaki zuten, Portugal ingelesen aliatua baitzen. Horretarako frantziar tropei Iberiar penintsula zeharkatzeko baimena eman zien Espainiako erregearen ordezkariak. Portugal ez ezik penintsula osoa inbaditzeko frantziarrei atak parez pare zabaltu zizkieten, alegia.

Teorian, itunak zioenez, frantziarrak aliatuak ziren, baina iruindarrek susmo txarra hartu zieten “inbaditzailerak” haiei, besteak beste, 2.000 gizoni ostatu emateaz gain, jan-edanak ere musu truk eskaini behar zizkietelako. Eta mesfidantza horrek oinarri sendoa zuen: Murat mariskalak zitadela hartzeko agindua emana zion ordurako D'Armagnac jeneralari.

Egun gutxitan soldadu frantziarren kopurua bikoiztu egin zen. 4.000 soldadu nahikoak ziren zitadela hartzeko, baina frantziar jeneralak, ahal zela, ez zuen



Iruñeko zitadelaren ekialdeko harresia eta katedrala elurtuta, XX. mende hasieran. Mende bat lehenago, frantses armadak zitadela hartu zuenean ere ingurua elurtuta zegoen, eta frantsesek ederki aprobetxatu zuten.

gotorlekua indarrez hartu nahi. Hala, Nafarroako erregeorde eta kapitain jeneral Vallesantoroko markesarekin bildu zen. Buruzagi frantziarrak hainbat soldadu Iruñean kantonatzeko baimena eskatu zion Vallesantorori, baina hura luzamendutan ibili zen, erabakia bere esku ez zegoela eta baimenak zuzenean Madrildik etorri beharko zuela esanez. Diplomaziak bide laburregia egin zuela ikusita, D'Armagnacek estrategia militarra jo zuen: Robert kapitainarekin

bildu zen eraso planifikatzeko.

Otsailaren 15tik 16rako gauean, Robert kapitainak 100 soldadu bikainenak aukeratu zituen eta, itxuraz armagabetuta, gauero bezala, zitadelako atera hurbildu ziren eguneroko ogi errazioak jasotzeko. Bezperan elurra gogotik bota zuen, baita ingurua ederki zuritu ere, eta Robert buru zuten soldaduetako batzuk elkarri elur bolak jaurtitzan hasi ziren. Zitadela defendatzen ari zen taldea ezohiko gudu hartaz trufatzen ari zela aprobetxatu zuten gainerako frantsesek gotorlekua erraz hartzeko. Egia esan, arreta galarazteko maniobra ez zen hain merezimenduzkoa izan, zitadela gerraren artean prestakuntza urria zuten boluntario gutxi batzuek defendatzen baitzuten. Ez dakigu zenbat elur bola jaurti zituzten gudu hartan, baina zitadela tiro bat bera ere bota gabe hartu zuten. ■



Arrastoak

Schindlerren zerrendako kiderik gazteena hil da



LEON LEYSON, Oskar Schindlerrek bere zerrenda ezagunari esker salbatu zituen 1.100 juduen artean gazteena, Kalifornian (AEB) hil da 83 urte zituela. Zerrendako 289. izena zen berea, eta 13 urte besterik ez zituela hasi zen Schindlerrentzat lanean. Adina eta elikadura urritasuna medio, Leyson txikiak kaxa baten gainean

igota lan egin behar zuen, eta Schindlerrek berak gaztearen janari errazioak bikoizteko agindu zuen.

Leysonen beraren hitzak erabiliz, ez zuen “Holokaustoaren itzalean” bizi nahi izan eta iraganari buruz hitz egiteari uko egin zion luzaroan. Spielbergen filma ikusi zuenean erabaki zuen bere lekukotza ematea. ■